

ETAren su-etena

Erreakzioak ♦ Nafarroako Gobernua

UPNk eta PSNk Parlamentuan bat egingen dute Nafarroaren estatusaren defentsan

Sanzek eta Lizarbek «funtsean» ados daudela esan zuten bilera egin eta gero

Miguel Sanzek, atzo Juan Jose Lizarberekin egin bileraren ostean, adierazi zuen UPN eta PSN «funtsean» ados daudela, eta ahal duten guztia egingen dutela Gobernuak Parlamentura igorri komunikaziotik sortuko diren erabaki proposamenek aurrera egin dezaten. Hala, ber, azaldu zuen Nafarroaren egungo estatus politikoaren defentsa dela komunikazioaren oinarri nagusia.

Juan Kruz Lakasta / Iruñea



Juan Jose Lizarbe, PSNko idazkari nagusia, eta Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko lehendakaria, atzoko bileran.

MIKEL HUARTE

tasunez egin elkarrizketarako gunea» sortuko dela.

Azkenik, Sanzek azaldu zuenez, hirugarren ardatza da Nafarroako Parlamentua dela Nafarroaren «identitate politikoaz eta lurraldetasunaz eztabaidatzeko gunea egokia», eta prest dago Madrilgo erakundeek Nafarroako Parlamentuak hartu erabakien berri eduki dezaten egin beharreko guztia egiteko.

Sanzek azaldu zuenez, UPNk, PSNk eta Gobernuak ahalegin guztiak egingen dituzte hiru ardatz horien inguruan ahal den susten-

gu handiena biltzeko Parlamentuan. Nolanahi ere, bi alderdiok ez daude gauza guztietan ados; izan ere, PSNk Iruñeko Itunaren bilerara deitu behar dela uste du. Sanzen aburuz, «Parlamentua nafar ororen borondatearen ordezkaria da, eta, beraz, une erabakigarri honetan Ituna baino egokiagoa da». Sanzek, azkenik, esan zuen Aznarrek bilera egingen duela eta eguna zehaztu gabe dagoela.

Bortitzak eta demokratik • Juan Jose Lizarbek azaldu zuen meto-

doak ez duela garrantzirik baina egokiagoa litzatekeela eztabaida Iruñeko Itunaren egitea, adostasun handiagoa izanzen litzatekeelako. «Ituneko alderdien artean funtsean adostasuna dago. Parlamentuan, berriz, gutxienez bi talde osatuko dira: batetik, HB eta, bestetik, demokrata, eta, beraz, Nafarroako gizartearen existitzen ez den ezadostasun irudia eskainiko da». Lizarberen ustez, «oraindik existitzen da bortitzen eta demokraten arteko banaketa», eta «bakea lortzeko giltzak bortitzen eskuetan segitzen du».

HB: «Eztabaida lapurtu nahi dute»

HERRI BATASUNAREN aburuz, Miguel Sanz lehendakariaren proposamena —Lizarrak Akordioa eta ETAren su-etena Parlamentuan aztertzea— eta PSNko idazkari nagusiarena —eztabaida Iruñeko Itunaren baitan egitea— «hutsegite larriak» dira. HBk atzo hedabideetara igorri prentsa oharraren arabera, «gure herriarentzat erabakigarriak diren uneotan, Nafarroako herritarrak ezin dira eztabaida parlamentario baten ikusle soilak izan, herritarren onespina sekula jaso ez zuen Foru Hobekuntzarekin gertatu zen bezala».

HBren idurikoz, «gatazka politikoaren eta bakearen inguruko eztabaida Nafarroako gizarte osoari dagokio», eta, horrenbestez, «ezin da utzi betikoen eskuetan». Oharrak dioenez, Lizarrako Akordioa sinatu eta gero sortu prozesuak berriz ireki du «burutzeke dagoen trantsizioaren» inguruko eztabaida, eta «herritarrak horretan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen ari dira». Indar aberztzaileen iritziz, PSNk eta UPNk «aurreko baldintzarik eta inposaketarik gabe Nafarroari buruzko eztabaida kasik hasi aurretik amaitu nahi du, izua diotelako Nafarroako gizarteak har dezakeen erabakiari».

Sanz «zenbait sektoreen antzinako beldurak berpiztu eta Parlamentuaren bitartez gizarteari funtsezkoa den eztabaida ebasten saiatu da», HBren iritziz. Lizarberen jarrera ere (mahaia bildu nahi izatea) adierazgarria irudituko zaio HBri. X

«Euskadi Información»ek lan taldean idatzitako liburuak, 15eko goizaldean EGIN eta EGIN IRRATIAREN itxiera eta ondorengo herri-erantzuna zorrotz eta sutsu kontatuko dizu.

Umerez gainezka, gertakizunen beroan, protagonista beraiek, Euskadi Información egunkaria sortu zen prekaritate eta bapatekotasun berarekin idatzi dute.

Euskadi Información egunkariarekin batera banatuko da Irailaren 25ean ostiralean, 1.000 pezetatan. Adi egon, ez duzu beste aukerarik izango!

